

# Korrikarekin baserri- baserri

Igandean, hilak 30, Korrika Kulturalaren harira, Altzako Historia Mintegiak mendi ibilaldia antolatu du. Ekimenaren helburua baserriak eta auzoak duen natur ondarea ezagutzea da.

**A**ltzako Historia Mintegiko lagunek Altzan, eta batez ere Auditz Akularren, balio handiko baserriak edota bide zaharrak daudela gogorarazi nahi dute: "Zenbait politikaririk Auditz Akular hutsik egongo balitz bezala aurkeztu digute. Guk, mendi ibilaldi honekin, ingurune horretan zer ikusi badagoela erakutsi nahi dugu".

Lehenik, Altzan urteen poderioz izandako hondamena erakutsi nahi dute Historia Mintegikoek. Hala, mendizaleek iaz eroritako Tomasene edo duela pare bat hilabete, autobidea zabaltzeko lanen ondorioz, lurrera botatako Alamo baserrien aurrean egingo dituzte geldiuneak. Bigarrenik, oraindik ere ustiatzen ari diren baserriak bisitatuko dira, tartean loragintzan aritzen den Akular. Hirugarrenik, kinka larrian daudenak ere erakutsi nahi dituzte Historia Mintegi-koek: "Adibidez, Sius baserriak kezkatzen gaitu. Egun ez da inor bertan bizi, baina egoera onean dago, familia batek zaintzen du eta. Sius-eko orubeak 500 urte inguru ditu eta Auditz Akularreko proiektua gauzatuko balitz, baserria galdu egingo litzateke, bere le-



*kuan kale bat egin nahi baitute".*

Baserriak kanpotik ikusteaz gain, barrualdeko objektuak ere ikusi ahal izango dira ibilaldian. Altzako Historia Mintegiko lagunek azaldu digutenez, "Historian izandako gerrek askotan inguruko baserriak suntsitu dituzte, baina badira mende luzez gordetako zenbait objektu interesgarri, Iparragirre baserriko gurutzea eta armari bihurtutako Miravalleseko ateko giltzarria, esaterako".

## Erreakak eta bide zaharrak

Baserriei ez ezik, Auditz Akularreko errekei -Molinao eta Akular, kasu-, zozoen edota txepetxan bizileku diren haltzadie eta bide zaharrei ere erreparatuko diete mendi ibilbidean. Izan ere, Historia Mintegikoek diotenez, 500dik gora urteko bide zaharrak daude inguru horretan, nagusia garai batean Erreterria eta Donostia lotzen zituen. Mendi

ibilaldia galtzara zahar horren aztarnetatik igaroko da, Molinao aldean.

## Korrika Kulturalaren egitaraua

### Igandea 30

10.30 "Hamalau baietz" ibilaldia, Altzako baserri zaharrak ezagutzeko. Casaresetik.

### Asteazkena 2

19.30 Joan Mari Irigoienen poesia saioa Casaresen

### Ostirala 4

10.00 Korrika Txikia Altza ikastetxetik aterako da

19.30 ER3MU4K taldearen "Inoiz izatekotan" ikuskizuna, Casares kultur etxean

21.00 Afaría Txalaka elkartearen

### Larunbata 5

18.30 Kalejira

20.00 Afari-merienda Altzako pilotalekuan

22.45 Korrikari ongi etorria

euskararen  
donostia  
patronaia



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

## Haur antzerkia

### •• "A, e, i, o, u"

Deabru beltzak  
Martxoaren 23an, 18.00etan  
Antzoki Zaharrea  
Martxoaren 29an, 17.00etan  
Ernest Lluch Kultur Etxean

## Pailazoak

### •• "Hau desastrea, zenbat traste!"

Kike, Blas eta Jonas  
Martxoaren 22an, 18.00etan  
Intxaurren Berri Kultur Etxean

## Musika

### •• Pier Pol Berzaitz eta bere musikariak

(Carlos Jiménez, Luis Camino, Maitetxu Aldarregia, Pascal Garde eta Txema Garcés)  
Iparralde bertan, Iparraldeari eskainitako jardunaldien baitan  
Martxoaren 27an, 20:00etan,  
Koldo Mitxelena Kulturuneko Areto Nagusian.

## Antzerkia

### •• III Donostia Antzerki Saria

Martxoaren 27an  
Antzoki Zaharrea

euskaraz.net